



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

ABONUEN ETA SARREREN SALMENTA

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN 31. ASTEA
(2020ko urriak 30 – azaroak 6)

ABONUEN SALMENTA

Aurten, orain bizi dugun egoera sanitarioagatik, Asteko abonuen eta sarrerren salmenta beste modu batera egingo da, azken urteetan ez bezala.

Antzoki Zaharreko eta Victoria Eugeniako aforoak erdira murriztuko dira Astean; horrela izaten ari da orain Donostia Kulturaren programazioetan.

Abonuen salmenta **ONLINE BAKARRIK** egingo da.

Aurten, Astearen sail ofizialeko programazioa bi antzokietan banatuko da, ordutegiak txandakatuta. Film bakoitza behin bakarrik emango da (nazioarteko film laburren maratokia izan ezik). Beraz, sail ofiziala osorik ikusi ahal izateko **ABONU BANA EROSI BEHARKO DA ANTZOKI BAKOITZERAKO** eta egun berean jarriko dira salmentan. Hala, bi abonua desberdin izango dira, bata Antzoki Zaharrerako eta bestea Victoria Eugeniarako, eta **BEREIZITA** erosi beharko dira, **ESERLEKUA AUKERATZEKO** aukerarekin.

Abonuak **ostiralean, urriaren 23an 11:30ean** jarriko dira salgai **online** (www.donostiakultura.eus/entradas). 150 abonua jarriko dira salgai antzoki bakoitzerako, eta egun horretan bakarrik salduko dira, agortzen diren arte.

Abonua Antzoki Zaharra: 41 €

Abonua Victoria Eugenia Antzokia: 36 €

Pertsona bakoitzak gehienez **2 ABONU** eros ditzake antzoki bakoitzerako.

Bi abonua erosten dituenak Astearen **katalogo** bat eta **2000maniacos** fanzine bat jasoko ditu.

Abonua paperean edo mugikorrean deskargatu ahal izango da, baina ez du balio izango antzokietan sartzeko. Horretarako, **TRUKEA EGIN BEHARKO DA EMANALDI BAKOITZERAKO PAPERERAKO SARRERA BAT ESKURATZEKO**, eta argitalpenekin batera entregatuko dira urriaren **28an eta 29an Victoria Eugenia Antzokiko Areto Balioanitzean (Okendo plaza)** ordutegi honetan: **11:00 – 14:00 / 17:00 – 20:00**.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

SARREREN SALMENTA

Sarrera solteen salmenta ere **ONLINE** egingo da. Webgunean (www.donostiakultura.eus/entradas) **asteartean, urriaren 27an, 11:30etik** aurrera jarriko dira salgai. Urriaren 27, 28 eta 29an **online bakarrik** erosi ahal izango dira. Ostiraletik, urriaren 30etik aurrera, berriz, bi antzokietako leihatiletan ere jarriko dira salgai.

Sarrera: 7,50 €

Pertsona bakoitzak gehienez **2 SARRERA** eros ditzake emanaldi bakoitzerako.

DESKONTUAK

DK BAZKIDEAK: % 10eko deskontua abonua eta sarrerak erostean.

Donostia Kulturako bazkideen **deskontu bera** izango dute **persona langabeek, 30 urtetik beherakoek, pentsiodunek eta 65 urtetik gorakoek**. Deskontu hori leihatilan bakarrik aplikatzen da, eta sarrera batean.

FNAC BAZKIDEAK: % 10eko deskontua sarrerak erostean, baina ez abonua erostean (deskontuak ez dira beste batzuekin bateragarriak). Deskontu hau leihatilan bakarrik aplikatzen da, eta sarrera batean.